



Ezkerraldea-Meatzaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoak 36 jarduera abiarazi ditu, 145,4 milioi euroko inbertsioarekin.

Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia, eskualdeko udalekin batera, 36 jarduera gauzaten ari dira funtsezko eremuetan, hala nola ekonomia suspertzean, enpleguan, gizarte-kohesioan, hiri-berroneratzean eta mugikortasunean eta jasangarritasunean.

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Eskualdeko Plan Estrategikoaren egoera aurkeztu dute gaur, asteazkena, Ezkerraldea-Meatzaldea Talde Eragilean. Eskualdeko 10 udalerriek osatzen dute talde hori – Abanto-Zierbena, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran eta Zierbena –. Plan Estrategiko horrek islatzen ditu barne hartutako jardueren % 97ren hasiera eta abian jarritako 145,4 milioi euroko inbertsioa, 2021. urtean hasi zenetik.

Plan Estrategiko hori 2021eko ekainean onartu zen, eta, guztira, 211,6 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko ekonomia eta gizartea suspertzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak 67,4 milioi euroko ekarpena egin du, eta Eusko Jaurlaritzak 144,2 milioi euro (horietatik 108 Berpiztu aparteko funtsei dagozkie), udalekin eta eskualdeko gizarte- eta enpresa-eragileekin kontratatutako eta diseinatutako plan baterako, partaidetza-prozesu handi baten esparruan.

Jarduketak sei proiektu bultzatzailetan bilduta daude: EzkerraldeaMeatzaldea Parke Teknologikoa (PTEM) – Energy Intelligence Center (EIC), Osasun Polo, osasun-sistemara bideratutako produktuak eta zerbitzuak garatzeko, lurzoru kutsatuak berreskuratzeko, auzo kalteberetako jarduketa integrala, garraio jasangarriaren eredua – C2 lerroko jarduketa (Bilbo-Muskiz) eta ondare industrialaren eta itsasadarraren balorizazioa.

Ezkerraldea-Meatzaldeko Parke Teknologikoari eta EICri dagozkien jarduketek honako hauek barne hartzen dituzte: jada amaituta dauden eta 500.000 metro koadrotik gorako



azalera duten sarbide- eta urbanizazio-obrak, Egoitza eraikina eta EIC eraikina eraikitzea, horiek ere amaituta, eta laster inauguratuko dira, 67,1 milioi euroko aurrekontuarekin. Era berean, 2023an eraikin berri bat (María Telkes) eraikitzen hastea aurreikusten da, enpresek egindako kokapen-eskaerei erantzuteko, eta Ezkerraldea-Meatzaldeko Parke Teknologikoa handitzen jarraitzeko, Ortuellan. Parke horretan, elikagaien industrian eta arlo horretako zerbitzu aurreratuetan espezializatutako campus bat egongo da.

Bestalde, Osasun Poloarekin lotutako jardueren artean, aurrera egin da osasun-sistemaren eta enpresa-sektorearen beharren azterketan, bai eta behar horiei erantzungo dieten produktu eta zerbitzuen garapenean ere, proiektuaren behin betiko dimentsioa erabakitzeko. 2022an, Sestaon lurzati bat erosi da, enpresa biosanitarioentzako eraikin bat kokatzeko. Gaur egun, plegua idazten ari dira, eta obra 2023an lizitatu ahal izatea aurreikusten da.

Kutsatutako lurzoruak berreskuratzeari eta eskualdea suspertuko duten enpresa-jardueretarako espazio berriak sortzeari dagokionez, lursail berriak erosi dira Burtzeñan, Etxeulin (Santurtzi), Barriko hondartzan eta Sakonin (Erandio), bai eta Trapagarango Navacel eraikina ere. Lurzoru horiek eskuratzeak, aurreko titulartasunekin batera, 400.000 metro koadroko azalera jartzen du eskualdearen esku, eta horren gainean aurrera egiten da dagozkion hirigintza-izapideetan. Ildo beretik, 2023an eremu guztietan lurzoruaren eskurapen berrietan aurrera egitea eta Trapagaranen eta Santurtzin erremediatze-lanak hastea aurreikusten da.

Auzo zaugarrietako jarduketa integralarekin lotutako jarduketek 525 etxebizitza hartzen dituzte Abanto eta Zierbena, Portugalete, Santurtzi eta Trapagarango udalerrietan, eta hiri- eta ingurumen-berroneratzearekin, gizarte-sustapenarekin eta ekonomia eta enplegua suspertzearekin lotuta daude.

Garraio jasangarriaren ereduari eta C2 Bilbo-Muskiz linearen gaineko jarduketei dagokionez, Adifekin eraikuntza-proiektuak eguneratzen ari dira, Urbinagako aldagunea egiteko,



eta 2023an Adifek proiektua finantzatzeko eta lizitzatzeko hitzarmena sinatzea aurreikusten da. Era berean, hitzarmen bat diseinatu da eskualdeko hainbat udalekin, besteak beste, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestaorekin, bizikletak alokatzeko zerbitzu publiko partekatu baten bidez udalerrien arteko garraio jasangarria sustatzeko.

Azkenik, industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioari buruzko jarduketetan lau lan-ildo nabarmendu behar dira. Alde batetik, turismo-eskaintza gisa ondarea berreskuratzea, non honako hauek nabarmentzen diren: Agurtza hegaluzea, Bizkaiko Labe Garaien lokomotorea, Itsaslur bide berdeak eta Burdin Mendiak birgaitzea, gasolinoa babestea. Bestetik, industria-ondarea berreskuratzea, interpretazio-zentro gisa, Labe Garaian, La Orconera ondare-zentroan, El Pobaleko burdinolan, Rialia museoan eta Sestaoko Sorospen Gellan, dibulgazio-gune eta turismo-bulego gisa. Era berean, itsasadarraren inguruko mugikortasun eta kohesioan aurrera egin da, inpaktu-proiektuen bidez, hala nola Erandioko bulebarrak, Barakaldo eta Erandio artean itsasadarraren bi ertzak eta Barakaldo – Bilbo bidegorria lotuko dituen bizikleta eta oinezkoentzako zubi mugikorra. Azkenik, itsasadarraren eta industria-ondarearen inguruko kirol- eta kultura-ekitaldiak antolatzeak eskualdearen turismo-posizionamendua bultzatzen du, eta itsasadarrari balioa ematen dio, herritarrentzat kultura-, kirol- eta aisialdi-espazio gisa.

Talde eragileak oso balorazio positiboa egin du Ezkerraldea-Meatzaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoaren esparruan orain arte definitutako jardueren garapen-mailari buruz.

Ezkerraldea-Meatzaldea Eskualdeko Plan Estrategikoan eta etorkizunean zehaztuko diren beste batzuetan definitutako ekintza horiekin, udalerrietan identifikatutako arazo komunak konpontzeko lan egiten da, hala nola aukera-sektoreak bultzatzea (energia, osasuna); gaitasunak eta kalitatezko enplegua egokitzea; gizarteratzea eta hiri-berroneratzea; itsasadarraren inguruko aisiarako eta turismorako aukerak; lurzoruen deskontaminazioa eta kudeaketa, eta garraio-eredu jasangarrirantz aurrera egitea.



BIC BIZKAIA
EZKERRALDEA
UP! EUSKADI

Proiektu estrategiko horien garrantzia dela eta, inplikaturako erakunde guztiek (Eusko Jaur-laritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Udalek) berretsi egin dute proiektu horiek bultzatzeko eta beren eskumeneko jarduerak abiarazteko izapideak arintzeko konpromisoa.

Bizkaiko Labe Garaiak etorbidea 33

48901 Barakaldo (Bizkaia)

944 184 100

www.bicezkerraldea.eus



El Plan Estratégico Comarcal de Ezkerraldea - Meatzaldea ha puesto en marcha 36 actuaciones con una inversión de 145,4 millones de euros.

Gobierno Vasco y Diputación Foral de Bizkaia junto con los Ayuntamientos de la comarca están ejecutando 36 actuaciones en ámbitos clave cómo la reactivación económica, el empleo, la cohesión social, la regeneración urbana y la movilidad y la sostenibilidad.

El Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia han presentado hoy miércoles en el Grupo Motor de Ezkerraldea - Meatzaldea, integrado por los 10 municipios de la comarca - Abanto-Zierbena, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran y Zierbena- el grado de avance del Plan Estratégico Comarcal, que refleja el inicio del 97% de las actuaciones incluidas y la inversión en marcha de 145,4 millones de euros, desde su inicio en el año 2021.

Dicho Plan Estratégico, aprobado en junio de 2021, contempla una inversión total de 211,6 millones de euros y persigue la reactivación económica y social de Ezkerraldea y Meatzaldea. La Diputación Foral de Bizkaia aporta 67,4 millones y el Gobierno Vasco 144,2 millones de euros (de los que 108 corresponden a los fondos extraordinarios Berpiztu), a un plan contrastado y diseñado conjuntamente con los ayuntamientos y con los agentes sociales y empresariales de la comarca, en el marco de un intenso proceso participativo.

Las actuaciones se hallan agrupadas en seis proyectos tractores: Parque tecnológico EzkerraldeaMeatzaldea (PTM) – Energy Intelligence Center (EIC), “Osasun Poloa” nodo de desarrollo de productos y servicios orientados al sistema sanitario, recuperación de suelos contaminados, actuación integral en barrios vulnerables, modelo de transporte sostenible - actuación línea C2 (Bilbao-Muskiz) y valorización patrimonio industrial y de la ría.

Las actuaciones correspondientes al Parque Tecnológico de Ezkerraldea-Meatzaldea y EIC incluyen las obras de acceso y urbanización ya finalizadas de una superficie de más de 500.000 metros cuadrados, la construcción del edificio Sede y del Edificio de EIC también finalizados y que se inaugurarán próximamente, con un presupuesto ya ejecutado de 67,1 millones de euros. Asimismo, se contempla el inicio de la construcción de un nuevo edificio (María Telkes) durante el año 2023 para cubrir las demandas de ubicación realizadas por empresas, así como continuar con el desarrollo de la ampliación del Parque Tecnológico de Ezkerraldea-Meatzaldea en Ortuella que acogerá un campus especializado en la industria alimentaria y servicios avanzados en este campo.

Por otro lado, entre las actuaciones relacionadas con el Polo de Salud, se avanza en el análisis de las necesidades del sistema sanitario y del sector empresarial y del desarrollo de productos y servicios que respondan a esas necesidades para decidir la dimensión definitiva del proyecto. Durante el año 2022, se ha ejecutado la compra de una parcela en Sestao con objeto de ubicar un edificio para empresas Biosanitarias. Actualmente se está trabajando en la redacción del pliego y se prevé que se pueda licitar la obra durante el año 2023.

En la relación a la recuperación de suelos contaminados y creación de nuevos espacios de actividades empresariales que reactiven la comarca, se han llevado a cabo adquisiciones de nuevos terrenos en Burtzeña, Etxeuli en Santurtzi, los sectores Playa Barri y Sakoni en Erandio, además del edificio de Navacel en Trapagaran. La adquisición de estos suelos, unida a las titularidades previas, ponen a disposición de la comarca 400.000 metros cuadrados de superficie sobre los que se avanza en las correspondientes tramitaciones urbanísticas. En la misma línea, en el 2023 se prevé avanzar en nuevas adquisiciones de suelo en todos los ámbitos e inicio de labores de remediación en Trapagarán y Santurtzi.

Las actuaciones vinculadas a la actuación integral en barrios vulnerables engloban 525 viviendas en los municipios de Abanto y Zierbena, Portugalete, Santurtzi y Trapagaran que

giran en torno a la regeneración urbana y ambiental, promoción social y reactivación económica y empleo.

En lo que respecta al modelo de transporte sostenible y las actuaciones sobre la línea C2 Bilbao – Muskiz, se están actualizando los proyectos constructivos con Adif para llevar acabo la ejecución del intercambiador de Urbinaga previéndose en el 2023 la firma del convenio de financiación y licitación del proyecto por parte de Adif. Asimismo, se ha diseñado un convenio con ayuntamientos de la comarca entre los que se encuentran Barakaldo, Portugalete, Santurtzi y Sestao, para fomentar el transporte sostenible entre municipios a través de un servicio público de alquiler de bicicletas compartido.

Por último, las actuaciones referidas a la valorización del patrimonio industrial y de la Ría cabe reseñar cuatro líneas de trabajo. Por un lado, la “recuperación de patrimonio como oferta turística”, donde destacan la rehabilitación de la bonitera Agurtza, de la locomotora de AHV, las Vías verde Itsaslur y los Montes de Hierro, la preservación del gasolino... Por otro lado, la “recuperación de patrimonio industrial como Centro de Interpretación” con actuaciones en el Alto Horno, el Centro Patrimonial la Orconera, la Ferrería del Pobal, Museo Rialia y el Cuarto de Socorro en Sestao como espacio divulgativo y oficina de turismo. Igualmente se ha avanzado en la “movilidad y cohesión en torno a la Ría” con proyectos de impacto como el bulevar de Erandio, el puente móvil para bicis y peatones que conectará las dos márgenes de la Ría entre Barakaldo y Erandio y el Bidegorri Barakaldo – Bilbao. Por último, la organización de eventos deportivos y culturales en torno a la ría y el patrimonio industrial contribuye al posicionamiento turístico de la comarca y la puesta en valor de la ría como espacio cultural, deportivo y de ocio para la propia población.

El Grupo Motor ha valorado muy positivamente el grado de desarrollo de las actuaciones definidas hasta la fecha, en el marco del Plan Estratégico Comarcal de Ezkerraldea - Meatzaldea,



Con estas acciones definidas en el Plan Estratégico Comarcal de Ezkerraldea - Meatzaldea y otras que se irán definiendo en el futuro, se trabaja para dar solución a los problemas comunes identificados en los municipios, como impulso de sectores de oportunidad (energía, salud...); adecuación de capacidades y empleo de calidad; inclusión social y regeneración urbana; oportunidades para el ocio y turismo en torno a la ría; descontaminación y gestión de suelos y avance hacia un modelo de transporte sostenible.

Dada la importancia de estos proyectos estratégicos, todas las instituciones implicadas (Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamientos de Ezkerraldea y Meatzaldea) han reiterado su compromiso a impulsarlos y agilizar los trámites de puesta en marcha de las diferentes actuaciones en el ámbito de sus competencias.